

ZARRA

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

207n. zenbakia
orrilla/maiatza 1996



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**GASTEIZ'KO
GOTZAIN-ELEIZA**

ZARRA

BAKE-BILLA

Bake bidean oztopoak beti izan ba'dira be, azken aldi ontan iñoiz baiño geiago nabari da alderdi arteko arazoak egundoko garraztasunaz sortu dirala.

Ba-dirudi auteskundeak bertan dagozala-ta, oi dan bezela, talde politikoak alkarren aurka burruka asten dabela, iñolako begirame., barik, batzuek bestiei iñun diran eretxipen. akats eta erruak leporatu bearrean.

Onelako giro oldarkor, ainbeste ustelkeri artean, GAL-ETA arazoa geroago zurrungarri ta indartsuagoa agerzen da.

Egoera onetan eldu jakun urte azkena ta, oiturari jarraituz, lendakari jaunak oizko itzaldia egin euskun.

Arduratsu ta kezkatu bakearen buruz ari zan berbaldian. Bereziki Ajuria Enea'n alderdi demokratiko guztiak artutako erabagiari tinko eutsi bear dautsoela eta danok. bat egiñik, ez dabela iñoiz onartuko indarkeria erabiltzea. Baiña baita esan eban au ez dala naikoa, ba urrengo pausoa ematekoan. (bakea zelan lortu) ez dirala, tamalez, bat etorten.

Bakegintza arloa zintzotasunez eta argi erabilli eban: Bakea ez da politikoei bakarrik dagokion auzia. Lendakariaren eretxian ara-bent, guztion zer-egiña da, bai politiko bai erritarrena.

Jarraian eurok, politikoak, gizartearen laguntza bear dabela esan eban. Adierazi euskun bakearen aide agerkunde edo man ifestaldiak, beste arazoari buruz egiten diran legez, eginkor eta goresgarriak al-izango leitekezala. Erritarrak egindako bake eskaerak-esan eban Ardanza jaunak-guretzat laguntza onena izango da.

Azkenean eztabaida ta tirabira giro naigabezko baten, Ajuria-Enea'ko Ituna bazterreratu bear izan zan. Zazpi orduko batzar iragankor onetan, indarkeria gaitzetsi ta gero, itz-aldi guztian burujabetzari buruz ari ziran. Batzuk Euskadi'ren burujabetza ontzat artu nairik eta besteak, alderantziz, arazoa bastartzen aleginduz.

Asko eztabaidatu ondoren, Garaikoetxea jaunak eragindako asmo-agertze bat onartu zan. Asmo onen arabera "pakean eta erri-agintez edo demokraziaz. Euskadi'ren erritar geienek onartzen dabezan erabagiak, zutik dagon legedi barruan egokitu daitezcan.

Aitatu dogun erabagian, burujabetza itza agertzen ez dan ezkerero, arazoa illuntasunean eta zalantza artean geratu da.

Garaikoetxea'k isilbidez baiña egiz eta izanez, burujabetzaren oiñarri ta sustraiak onartuta dagozala baieztatzen dau. Besteak barniz, batez be Mayor Oreja jaunak, olakorik ez dagola diño.

Beste arazo aitatugarri barik, ez itz eta ez bits batzar au amaitu zan. Ba'dirudi epaillean izango diran auteskunde ondoren (giro egokiagoa izango dalakoan gagoz) beste batzorde bat egiteko asmoa dagola.

Bakea billatzea gaia darabilgun ezkerero, bidezko da Elkarr'i buruz zeozer esatea. Erabide au 1992'ko abenduaren 20'an Donostia'n sortu zan. Bere elburua Euskal Erri'rako alkarrizketa ta erabakian oiñarrituta dagon bakea lortzea da.

Erri Batasuna'ren ingurutik sortu dan ezkerero, lenengon, indarkerizaleak makalduta geratuko dirala-ta, beste alderdiak atsegin eta begi onez onartu eben.

Baiña laster, burnibizi edo "iman" batek eraginda bezela, bata bestetik ain urrundu ta asarretuta diran PP eta PSE-EE alderdiak, bereala, alkar bildu ziran euren aldi-ezintasuna adi-erazteko.

Eurentzat ez dago bakea lortzeko Elkarr'i'k diñon irugarren bide ori. Mayor Oreja jaunak PNV'ek darabilen maltzurkeria dala diño, ta gaiñera bere ordezeko edo bozeramailea dalakoan dagola.

Aldizkari onetan, zezeillaren 204n zenbakian, esaten genduan, guk dogun aberri-auzia edo antzekQa, beste errietan be dagozala: Palestina, Bosnia, Eire-Land... eta azkenean. ainbeste alperreko ondamendi ta odol-eriotza ikusirik, eurak indarkeriari uko egin eta alkar-izketako bidera jo bear izan ebela.

Zergaitik ba emen, Euskadi'n, ez da onartzen alkarrizketa bidea bakea lortzeko?

Bakeari buruz itz egiteko, diño alderdi espaiñarrak, guda izan bear dau eta olakorik emen ez dago. Emen lenbailen ezeztu bear dogun gaizkille ta zantar-iperdi talde bat baiño ez dau.

Ezaguna da erri guztiak. giza eskubiden arabera, burujabetasuna edo autodeterminazio-eskubidearen jibe dirala.

Guk ba-dakigu, ondo jakin be, iñun erri bat ba'dago Euskal Erria dala, bere ab('da jatorra ta ain ezkutuzko ta arrigarria dan darabilen izkuntza. Onezaz gaiñera, aitatu bear doguz bere edesti, ekandu, oiturak ta jakintza berekizkoak erriari nortasuna emoten dautsoenak.

Edesti-arauz be, argibide sendo ta eraginkorrak ba-dauz gure burujabetzaren aide alegintzeko. Ondiño ez da ain luzaro (1876'ko urtean) Cánovas del Castillo'ren egunetan kendu euskuezan gure azkenengo eskubideak. Ordutik, lenengo karlostarrak eta gero, Sabin'ek PNV-EAJ sortarazi eban-ezkerero abertzaleak bezela,ba-dira eun urte eten barik, aitatutako eskubideak berreskuratzeko arloan ari garala.

Agertu doguzan argibide ta zertzeiadak gogoan arturik. eta biltzar bat egiten ba'da burujabetzari buruz alderdiak eztabaidatu daitezen: Zer jazoko ete-litzake? Or dago

untz-eal

BIZKAIERAZKO IRAKASKUNTZA

EDO ETENGABEKO NEGARRA

Zergaitik ete da bizkaieraren aide gabilzanok beti negarrez ibili bearra? Zergaitik egon bear beti erregutzen, eskatzen, mesedea? Sarritan telebistako emonaldietan agertzen diran Afrika urruneko baltz koitaduen antza daukagula uste izaten dot: begi andi-andiak eta zabal-zabalik ogi zatiren bat noiz jausiko itxaroten.

Baina guri ogi zati on ez jaku inoiz eltzen. Eta zergaitik? Zer gertatzen da? Ez dakigu eskatzen ala ez dogu gar edo kemen naikorik jartzen eskatzeko orduan? Berba gozoz eskatu bearrean maai gainean ukabilkadaren bat emonda eskatu bear? Baleiteke orixe izatea!

Aspaldion kekkak anditu egin dira bizkaieraz irakasten daben ikastolen artean. Orain arte geienak, sikeran Oinarritzko Ezkuntza emoteko, liburuz ornituta egon dira IBAIZABAL argitaletxearen liburuz. Ezkuntza orrek ikasleek 14 urte bete artekoa artzen izan dau eta ikastola batzuk denpora guzti orretan euren ikasketak bizkaieraz emoten izan dabez. Baina aurtan Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza asiko da, beronek aldaketa sakonak dakartzelarrik, bai irakasteko eran, zein testo liburuetan, baita ikastolen eta eskolen antolamenduan.

Oraindino bizi-bizirik dagoz "Mapa Eskolar" deritxon orrek sortu dauazan eztabaida eta goraberak. "Mapa" on dala eta ikastetxe orretariko batzuk ez dabe Derrigorrezko Bigarren Ezkuntza emongo. Ikastetxe orreetan umeak 12 urte bete arte egongo dira, gero "Instituto" etara joango direlarrik. Eta orrek zer dakarren? Ba, Derrigorrezko Leenengo Ezkuntza emoten daben ikastetxeak beste orreen menpe geratzea, eurak diralako ezkuntzaren norabidea jarriko dabenak. Orduan baten baino sarriagotan gertatuko da, gero ere ikasleen ezkuntzak jarraipen bat euki daian, txikien eskoleak Institutoaren izkuntz eredua artu bearko dau.

Bota daigun IKASTXIKI ikastoleak orain arte 14 urtera arteko ikasketak emoten izan dauazala, eta bizkaieraz gainera. Baina emendik aurrera legeak orrela aginduta edo antolamendu aldetik ezin daualako Derrigorrezko Leenengo Ezkuntza baino ez dau emongo, an da 12 urtera artekoa, gero bere umeak NAGUSIKAS institutora joango direlarrik, orrela egin dabe ituna eta.

Kontutan izan itun orreek baldintzatuta egoten direla (urbiltasuna, inguruko ikastetxeen kopurua...) eta bidea jartzen dauana goi mailako ikasketak emoten dauazan ikastetxea dala. Kasurik geienetan gertatzen danez NAGUSIKAS ikastetxeak bere ikasketak batuaz emoten dauazanez, IKASTXIKI ikastolak geroa ziurtatzeko ere, orrela emon bearko dauz. Eta au ez da "ciencia ficcion" deritxen eleberri bat, gertatu egingo dan benetako zera baino.

Gauzak oraindiko larriago gura dozuz ikusi? Ba oraintxe jarriko deusdaz. Erreforma deitzen deuten onegaz batera, gorago aipatu dodanez, aldaketa sakonak datoz metodologia, ikasketa eta abarretan, beraz langai, lanabes eta lan tresna barriak bear dira. Eta ortxe dago koxka: bizkaieraz emoteko aukera egin dabenak, 12 urtetatik gora klaseak emoteko lan tresna barik geratu dira, beintzat datorren ikasturteari begira. Beste era batera esanda, ez dago bizkaieraz irakasteko libururik Derrigorrezko Bigarren Ezkuntzarako.

Orain arte liburuz ornitzen izan dauazan IBAIZABAL argitaletxeak testu bi baino ez dauaz atarako bizkaieraz: euskerakoa eta erlijioakoa. Eta beste guztiak? Batuaz jaina!, ez dago Matematika, Natura edo Gizarte bizkaieraz ikasterik! Badirudi azpitik arrazoi ekonomikoak dagozala, liburu bat argitaratzeko eta errentagarria izan daiten ale kopuru baten salmenta ziurtatua euki bear da eta.

Oraindik gauzak kilin-kolon dagozanez, bearbada argitaletxea ez da ausartu beste libururik ataratzen eta emendik urte batera egoera barriro aztertu ondoren eskeintza osoa ataratzen dau: edo, zeinek daki, daukazan ere kendu!

Ze urtenbide dago orduan? Ba leen esan dodana: batuerazko liburuak artu. Edo bizkaieraz irakatsi eta batuaz ikasi, beronek dakarrezan kaka-naaste guztiekaz. Edo bestela antzinako denporetara biurtu: nork berak eta aal dauan moduan zer edo a atara. Patxikoren denporarik onenetara biurtuko bearko ete gara? Etorkizun penagarria bizkaieraz irakasten daben ikastolentzat.

Zer egin? "negarren orma"-ra aieneka joan? Edo maai gainean ukabilkadea emon? Eta zeinen maairen gainean emon? Zeinengana joan erreguka eta mesedeak eskatzen? Arrazoi ekonomikoak nagusitzen diranean badirudi orreen kontra ezer egiterik ez dala egoten, negarra eta zotina izan ezik. Leen ere arrazoi naikorik egon bada gure euskalkia ikastolatan irakasteko, zeuk esango deustazu, irakurle, zelanko etorkizuna ikusten dozun orain onegaz.

Alan eta guztiz ere baikorra izan gura dot eta egoera onek urte bat baino ez dauala iraungo pentsatu, urrango ikasturterako IBAIZABAL argitaletxeak, edo beronek ez bada besteren batek, edo bizkaieraz irakasten daben ikastolen artean, urtenbideren bat aurkituko dabela, gauzak here onera biurtuz. Aurreko baten esan nebenez, galdu ere, leenago galtzen da bizia itxaropena baino.

ENRIKE ITXASALDE

OBETU DAIGUN GURE EUSKERA (IV)

BEDI ala IZAN BEDI?/ZILLEGI BEZAIGU ala ZILLEGI BEKIGU

Zati banatan arilduko dot lantxo au.

A.— BEDI a la IZAN BEDI?

Aspaldi-aspaldi ez dala jazorikoa. Goren-gorengo euskal idazle bat zan eta batzuetan bere idazkUNETAN "bedi" aditz-jokoa utsik edo aditz-izenaren osagarri barik idazten eban. Ni, barriz, ausarta izan (lotsabakotxua be bai bide batez) eta berari zuzen-zuzenean joan nintzakion, eskutitz bat idatzirik. Idazkunean gitxi gorabeera auxe niñotsan: "bedi" aditz-jokoa "edin" laguntzaille iragangaitzaren jokoa zala, eta aditz-laguntzailleak esakunaren adierazkizuna ez dauala zeazten, aditza jokatzan lagundu baiño. Besterik ez. Au dala eta, "bedi" adizki ori, utsik erabilli bearrean, aditz-izenari erantsi dauana be aitatzen neuntsan, zein orrialdetan ori argitzen dauan zeatz ezarriz.

Sutan jarri jatan gizona. Sutan eta garretan. "Zer?", esan egikean bere kolkorako. "Mutiko arlote, ez-ikasi, xixtrin, zinzti, arpegi-merro lepoker ori niri, euskal jakituraren gaillur-gaillurrean patxada-patxadaz jesarrita nagoan oni, agirika eta irakasten etorri? Utikan! !". Eta beatz lodian suge batek aginka egin baleutso lez orroaka eta arrantzaka asi jatan. Orroa eta arrantza egin bai, baiña arrazoi izpirik ekarri ez, eta Azkueren berbak aitatu be ez. Apaltasunaren apaltasuna, orixe!

Gaur be badira bedi utsik erabilten daben idazleak, gaztelerazko "sea" (aginte era, imperativo) euskeratzeko. Argitu dagigun, beraz, "bedi" jokoa utsik ez dala ezer euskeraz, eta "izan bedi" zergaitik esan eta idatzi bear dogun.

Aurreko lantxo baten auxe argi iminten aalegindu nintzan: izan aditza aberatsa dala euskeraz. Gizaldietan zear ez dot uste beste bestean, aditz-era eta aldi batzuetan gaur agortuta geldidu da. Gure egunotan ez dogu izan aditza aginte-eran (imperativo) jokatzan. Eta idazkun zaar-zaarretan baiño ez dira irakurten onango jokoak: naizan = sea yo, aiz adiñon = sé acomodado, biz = sea él, garean = seamos nosotros, zara zuek = sed vosotros, bir = sean. Gurarizko eran (modo subjuntivo) eta aal-eran (modo potencial) be ez da jokatzan. Era orreetan izan aditzak berak be laguntzaillea bear dau jokatu aal izateko, edin laguntzaillea, ain zuzen.

Agerbidez:

izan nadin = sea yo, izan adi = sé tú, izanbedi = sea él, izan gaitezen = seamos nosotros... eta abar. "Que él sea" no es bedi, sino izan bedi, así como "que venga" es etor bedi, "que él llegue" hel bedi. Eta bedi no es flexión

de izan, sino de edin" (Morf., 659 orr.). Orra Azkuek irakatsia. Argi ete dago?

B.— Zillegi bezaigu ala zillegi bekigu?

Uts au gipuzkoar idazleena dala esateko nago. Barkatu begiste gipuzkoar idazle adiskideak. Ez oraingoan idazleena bakarrik, aspaldidanik datorrena baiño. Ogei eta amar urte baiño geiago izango dira Basarri, bertsolari ospetsuak eta idazle onak Donostiako "La Voz de España" egunerokoan euskerazko txataltxo bat idazten ebal. Garai areek euskerarentzat oso latzak ziran. "Arantzazuko Amaren Egutegia" eta Basarri andiaren eguneroko lantxoak kendu ezker, beste ezer gitxi euskeraz argitaratu aal zeitekean urte areetan. Basarriren lantxoak begi-begikoak eta gogo-gogozkoak izan oi ziran niretzat. Egunkari a bein baiño geiagotan erosi neban nik Basarriren lana irakurtzearren bakarrik. Euskera jatorra, errikoia, ulerterreza erabilten ebana. Baiña darabilgun eta aitatzen diardugun puntutxu onetan Basarrik uts egiten eban. Geienetan uts eta uts. Eta oraingo idazle gipuzkoar batzuk be antzera egiten dabe uts. Aztergai au, ondorenez, argitu bearrean gagoz.

Edonork daki —edo jakin bear leuke— gramatikazko esakun batzuk nork-bageko esakunak dirala (oraciones impersonales). Adibidez: Koldori atzo sari eder bat emon jakon/eman zitzaion. Koldori zer emon jakon aitatzen da. Nork emon dautsan, oster, ez. Orrexegaitik nork-bageko edo pertsonabageko esakuntza (oración impersonal).

Eta, ara: aditza iragankorra (transitivo) izan arren —aitaturiko esaldian aditza emon/eman aditz iragankorra da— laguntzaillea iragangaitza (intransitivo) izan oi da, aitaturiko esakun orretan jakon/zitzaion iragangaitza danez.

Azterkizun dogun esakunean, ondorenez, bezaigu aditz laguntzaillea ez da iragangaitza, iragankorra baiño, au da, ezan aditz laguntzaille iragankorraren jokoa, baiña esaldi orretan edin laguntzaille iragangaitzaren jokoa erabilli bear da euskera zuzena eta jatorra izateko, au da. bekigu adizkia, ez bezaigu. Esaldi osoa, beraz, onan gelditzen da? zille i bekigu, ez zillegi bezaíu.

Gramatikakeriak? Ez dot uste. Gramatikazko legeak erriak darabillan euskeratik artuta dagoz. Erriko euskera da, beraz, araututa daukaguna, ez dira norberaren asma-keriak.

AGIRREGABIRIA

LAUAXETA'REN AZKEN-NAIA TA AGIRIAK

AURKEZPENA

Gure artean gaur. Olazar tar Martin euskaltzale. idazle ta eragille andia. Erri-euskereaz txikitandik inguraturta, baserrietan erabilten dan euskerea sustraitik ezagutzen dau, baita euskera jakintsua be.

"Euskerazaleak" en lendakari-ordea eta "Euskera-zaintzako" lendakaria dogu.

Zailla gogoratzea izango litzakigu. euskal alorrean berak egiñiko lanak, baiña nik aipamen "ZER" gure aldizkariaren zuzendaria dala esango dot. eta nire ustez eziña izango litzake, ber^a hank gure aldizkariaren iraupena asmatzea. eta ain ugari idazten dituan idazlanak gozatzea.

Andia ta sakona da Martiñ'en jakituria. eta niketz esango dot. adiskidetzat ta maisutzat daukadala. hurubi-dearen eske heragana joten dodalako. zailtasunen bat aurkezten yatanean

Bete berbagia. Lauaxeta'ren azken idazkiak aztertzea izango da.

GABON, JAUN-ANDREOK:

Beti zor dautsegu itzaltasuna ta maitasuna enriaren aide bizia emoten dabena eta geiago oraindiño curen bizitzako azken-egunai.

Gaur Lauaxeta abertzale ta idazle aundiaren azkenengo egunetara urreratzen gana. Itzaltasuna ba. eta maitasuna.

Gasteiz'en, espetxe hiurtuta egoan karmeldarren lekaidetxean igaro ebazan Lauaxeta'k here bizitzako azkenengo egunak. Gero 1937'ko bagillaren 25'ean, goizako 5 1/2'etan il eben Santa Isabel Illerrian orma otzaren ondoan, Gora Euzkadi deadar egin ondoren.

Zeintzuk ziran Lauaxeta aundiaren barruan il-aurreko iru egunetan izan ziran pentsamentuak? Ori egun areitan berak idatzi ebazan agirietatik went geinke eta aterako dogu gaur.

IDAZKIAK

Nik artu dodazan orrien artean agertzen diran agiriak oneik dira:

ZAZPI OLERKI:

Goiz eder onetan

—Eguna berantz doa

_ Agur Euzkadi, Jaunak naroa

Biotz donea

— Virgen Maria, de fulgor me llena

Si hay algo en mi más fuerte que tu yugo

— Yo llevo entre mi espíritu encendida

ZAZPI ESKUTITZ:

—Sr. Presidente del B.B.B.

Iñaki Garamendi Barrainkua

—A mis queridos padres y hermanos

—Para Zubillaga

— Para Zubillaga. Celda 52

— Julio Pagalday y Barrainkua

—Sr. Presidente del B.B.B. (2)

AZKEN-NAIA: ¡Viva Jesus! Mi testamento

I ATORTASUNA

Amahost agiri oneik, eskuz idatziak eta argazkiz aldatuak. Lauaxeta'ren arrebea dan Felisa'k eskuratu eustazan. Eta asieran euren jatortasunari buruz ezbairik izan ez ba*neban be, irakurri-ala, sortu jatazan ezbaiak: Agiri oneik "agiri jatorretatik artutako aldakien beste aldaki batzuk dirala" irakurri leike agirien artean.

Zalantzarako beste zio aundiago bat oraindiño: Lauaxeta berak dei egin eutson ilgo eben baiño iru egun lenago aita Alfonso Maria Moreno josulagunari eta au bere ondora _loan be egin zan. Gelara sartu zanean Lauaxeta belauniko ta ormara hegira liburu bat irakurten aurkitu eban, Aita Moreno berak bere liburu baten diañon lez. Liburuaren idazpurua auxe da: "Los papeles que yo rompi".

Idazpuruak berak diñoan lez, ingi idatzi orreik apurto egin ebazan. Zergaitik? Egin zan aldakirik apurto baiño len?

Oraintsu joan naz ni Deustu'ko Ikastetxe nagusiko Liburutegira liburu orren billa, baiña ez dago an eta ez dot izan geiago billatzeko aukerarik. Dana dala, ez dot galtzen liburu on aurkitzeko itxaropena.

Uzi daigun ba, zalantza apur bat aldean daroala, jatortasunaren arazo au eta aztertu dagiguzan agiriak eurak. Bear ba'da, agirien barrutik atera al izango doguz zioen batzuk.

EUSKAL ASTEA

1.— ZAZPI OLERKIAK

1.1.— "GOIZ EDER ONETAN"

Olerki au ez dator Aita Santi'k 1974'an argitaratu eban Olerkiak-Lauaxeta liburuan. "Zer"en ikusi daiteke (1976), baiña azkenengo aapaldiaren ostean auxe gaiñeratu bear da:

Gudan jausi nadilla zuzentzaren aide ez ormari atzez goiz eder argian.

Bertso bi oneik Aldakien beste leku baten agertzen dira eta laugarren orrian jarraitzen dauala diño, baiña ezin jakin laugarren orri on zein dan. Aapaldia labur geratzen da. Aurrekoak bederatzi edo amarrekoak dirala, au sei lerrokoa da.

Gogoratu daiguzan bertsoaren gai batzuk:

- Gaur, goiz onetan, ilgo nabe.
- Gorbei tik jatort kañoi-otsa.
- Gudariak, egazkiñak... Gazteok eutsi lur-amari.
- Aberriak bearren nauanean narozau Jauna?
- Esku zurbil oneik aul luzatu bediz euki dagien iku-rin donea.

• Jauna, eriotz au arren emostazu, askatasun deuna bial egistazu.

• Gorputz onek bakez atsedena dagian, erri askatuen egun aundira arte.

• Kristo gan itxaroten dot, Josu ren fedea besterik ez daukot.

• Bertso onen azkenean "baiña arren bukatu" diño. Zer ete da ori?

• Gero aldakietan beste leku baten dagozan bertso bietan, gudan jaustea nai dau eta ez orma-atzean, goiz eder argian.

1.2. "EGUNA **BERANTZ** DOA".

(Aita Santi'ren liburuan "Gel zaite")

Olerki au ba dator Aita Santi'ren liburuan. ZER'en 198-7 dator.

Aldakietan "Lauaxeta Zanaren olerkiak" idazpuruaz au eta urrengoa datoz.

Olerki au be oso polita eta Lauaxetaren olerkien artean ezaguna da. Oñarriko gaia Ebanjeliotik artua dala dirudi. Arako Emaus'eko ikasle bien idaztian esaten da "gelditu zaite gugaz". Eguna berantz doala ikusten dau eta bidez doan Jesus eri beragaz geratzeko eskaria egiten dautso. Liburu Santuak azaltzeko eskaria egiten dautso, barrua berotu eta eriotz itzala argi biurtu daiten.

Olerki eder onetan Lauaxeta'k neurri askea darabil era arrigarrian eta ederto.

1.3.— "AGUR EUZKADI"

Olerki onen idazpuru lez Aita Santi'k "Agur Ama" ipinten dau eta gero olerkiaren asieran "Agur ene erri", baiña aldakietan agertzen dan asierea "Agur Euzkadi" egokiagoa dala dirudi Lauaxeta'ren agotan.

Ona emen bertsoan agertzen diran gai batzuk:

- Agur Euzkadi, Jaunak naroa.
- Seme bat zeukan, baiña etsaiak kendu eutsoen biotza.
- Gurutz deunari mosu egiñaz aide egin eutson munduari.

• Euzkadi ona, zagoz betiko Kristo'ren fede betean.

• Eriotz deuna aurrean daukot.

• Euzkadi aske izan daitean, zaindu Josu'ren legea..

Emen amaitzen da ZER'en agertutako olerkia, baiña beste leku baten dagoz beste aapaldi bi eta ona emen gaiak:

• Gaztea naz bizitza onetan.

• Ez bedi egin neure oldea, zure naia bai ostera. Gogoa zeru argira, gorputza lur illunera.

1.4.— "BIOTZ DONEA"

Jakiña da Josulagunak zabaldu ebela Jesus'en biotzaganako zaletasuna eta gai oneri buruz lenengo berbaldia Bilbao ko San Anton'en egin ebala Kardaberaz aitak. Eta izan doguz Bilbao n oneraspen onen ezaugarri diran jakingarriak: Jesus'en Biotzaren irudia, Jesus'en biotzaren deia aldizkaria ta abar. Ez da ba arritzekoa Lauaxeta'k be zaletasun au agertzea. Gaiñera ez dogu iñoiz aitzu bear Lauaxeta'ren aldia gurea baiño aurreragokoa dala eta bitartean aldakuntza aundiak izan dirala eleiz-giroan.

• Jesus'en Biotzaren garrak zauritzen dau olerkaria.

• Otzak ilten nau zugandik urrun. Su gordiñak nauka zure ondoan.

• Su-gar, zakit Jauna, biotz barruan.

1.5.— **BIRJIÑA MARIA (Virgen María)**

Olerki au erderaz dator eta idazkiñez idatzita, baiña barrenean Gazteiz'ko Karmelo'n idatzia dala diño.

Andra Maria'ri otoitz sentikorra da:

• Zure begien diztirak beteten nau.

• Zure biotz bigunak odol barik ebagiten dau nire katea.

• Zure begikunean ikusten dot askatasun-eguzkia.

• Nire negarra esker biurtzen da.

1.6.— ZURE BUZTARRIA (Si algo hay en mi más fuerte que tu yugo)

Erderaz dator olerki au be eta ona emen gai batzuk:

- Zure buztarría sendoa da nigan. (Bera ilgo dauan borruari)

- Zuk bildurra sartzen dautsezu makalai.

- Jo bildur barik, gorputza makaltzen ba da be, ez gogoa.

- Gogoa arrano aundiaren antzekoa da, aixearen bildur barik.

- Zure aurrean buru-makur dagoz danak, nik ano jasoten dot burua.

Olerki au oso edema da eta une aretako bere egoerea ondo agertzen dau, borruaren aurrean.

1.7.— GOGOA BARRUAN BIZTUTA DAROAT NIK (Yo llevo entre mi espíritu...)

Ona emen erderaz dagoan olerki onetako gai batzuk:

- Bero-bero nago: Maite dot askatasuna, ez naz jai() burua makurtzeko.

- Eriotzarako epaia emon zeinke, baiña ez nire gogoa orbandu.

- Jo! Eguneke argia galduko dot, zeruko argia dago nire barruan.

Pentsaera oso ederrak eta ausartak agertzen dauz epaillearen eta borruaren aurrean bertso onetan be.

Orra or zazpi olerkien barria. Benetan irakurgarriak dira bai euskerazkoak eta bai erderazkoak.

Lauaxeta'k indar bi aurkitu ebazan une aretan adorea izateko: Kristau-fedea ta abertzaletasuna eta bi orreik sendotu eben here gizontasuna.

2.— ZAZPI ESKUTITZAK

Aldakietan zazpi eskutitz agertzen dira, zazpirak erderaz. Zergaitik erderaz? Zio bat izan daiteke orduan oraindiño eskutitzak erderaz egiteko oiturea zabala zala. Beste errazoi bat irakurleak ez eukela euskeraz irakurteko oiturarik, baiña bear ba da sakonagoa izan daiteke eskutitzak zaintzailleen eskuetara joan bear ebela eta oneik ez ekien euskerarik eta euskeraz idatzitakorik kanpora ateraten be ez eben itziko.

Nortzui idatzitakoak diran? Artzailleak kontuan dirala, iru mota aurkitzen doguz: politikako lagunai idatziak

adiskideai eginak eta here etxekoai idatziak. Bear ba da politika-laguntzat joten doguzanak, beste era bateko lagunak be izan zeitekezan.

2.1.— B.B.B.'ren LENDAKARIARI

Adiskide lez agurtzen dau eta lenengo ta bein ordu gitxi geratzen jakozala gogoratzen dautso. Gero leialtasunaren ziña barriztatu eta Euzkadi'n dauan fedea aldarrikatzen dau.

Gero, une aretako, pentsaera batzuk datoz Ebanjelio'tik artuta: Ez bildurrik izan gorputza il daikenari. Euskalerrriak fede-bidetik jarraitu dagiala eskatu eta beste pentsaldi au egiten dau: Gure erriak neke asko daroaz eta sari aundia izango dau.

Emakumeak eta abertzaleak agurtuz amaitzen dau.

2.2.— IÑAKI GARAMENDI BARRAINKUA'RI

Ez dakit nor dan Iñaki au, baiña ezaguna izango dala uste dot.

Ordu gitxi barru su-izkillutua izango dala gogoratzen dautso lenengo. Pozik ilten dala diño, Jesus eta aberria ondoan dauzala.

Iñaki'ri izan dautson maitasun aundia gogoratzen dautso: Aita baten antzekoa. Euzkadi maitatzeko eskatzen dautso.

Eta azkenean eskaritxu bat: Ikustaldi bat egin eta mosu bat emoteko bere ama errukarriari.

Milla bider bedeinkatuz agur egiten dautso.

Eskutitz onen atzean eta beste izki-era bategaz auxe diño: Jose Urigoiti Etxeta. Cecilia Aginaco. Laguardia. (Erditze irakaslea. Osagille-laguna).

2.3.— GURASO TA ANAI-ARREBA MAITEAI

Eskutitz oneitan, eta batez be etxekoai egindakoe-tan, Lauaxeta oso biotz onekoa eta biotz-biguna agertzen da. Olerkari izateko ohea dala dirudi, gudaria izateko baiño.

Eskutitz onetan barriro agertzen da jatortasunaren arazoa: Il aurrean bedeinkatu egin zinduezan... Noren berbak dira oneik?

Gero datozenak Lauaxeta'renak dirala dirudi:

- Pozik noa iltera, Kristo ondoan dodala. An itxarongo dautsuet.

- Aita, izan guztien babes. Ama, zuk irakatsi zeruko bidea.

EUSKAL ASTEA

- Alejandra, Migel, Felisa, Luzia ta Jose Martin, izan onak eta erregetu nigaitek.

- Iru gauza euki etxean: Kurutzea, Ama Birjiña ta ikurriña.

- Mosu bat gurtioi eta erregutu nire aide. Nik erregutuko dot zuen alde.

- Gora Euzkadi askatuta.

Eskutitz onen azkenean oar bat dago: 11 baiño ordu batzuk lenago idatzi eban eskutitz au. 1937'ko bagillaren 25'ean, goizeko 5 1/2 'etan.

2.4.— ZUBILLAGA'rentzat

Gizon bizartsua ta ule aundiduna (Kako-artearen eta erdera zarrean)

Jarraian olerki bat dator. Ona emen gaiak:

Bizarrak aurpegi estaldu, itxasoak nire gomutapenak uguzten dauz, diño eta gero olerkia oso sinbolikoa da.

Azkenean itz labur onek: Karlos adiskide! Txerrenak ez dauko aginpiderik...

2.5.— ZUBILLAGA'TAR KARLOS'ENTZAT (52. gelan)

Eskutitz au luzeagoa da eta ez olerkia len lez.

Bizitza onetan ordu gitxi geratzen jakozala diño eta **dautsozala here arreta-**gaitik eta ordain lez Santamaria lege-gizonari izten dautsola urrezko arkaitza, besterik geratzen ez jakolako.

Bilbao Enrike eta Ebaristo besarkatzeko diñotso. Eta guztiai esateko abertzalea izan dala eta kristiñau euskaldun lez ilten dala.

Mungia'ra doan baten bere gurasoai mosua emoteko diñotso eta Enrike'k begiratu dagiola Julio Pagaldai 'ri anai lez eta Iñaki Garamendi besarkatu dagiala. Kristiñau onak eta euskaldun onak izateko eskaria egiten deutse.

2.6.— PAGALDAI ETA BARRAINKUA'tar Julio'ri

Au aurreko kartan aitatzten dauana dala dirudi.

Aberriagaitik eta arerioai parkatzen ilten dala diño eta azken mezede lez eskatzen dautso: Kristiñau ona izateko.

Eta beste eskari bitxi bat: Ezkontzeko eta lenengo semeari Esteban izena ipinteko.

Eta azken-eskaria: Bere ama ikertzeko eta bere ize-
nean mosua emon.

Atzekoaldean orri txiki baten auxe diño: Etxebarrieta baserria, Klaudio Sarrionandia. Durango.

Eta aldakietan au gaiñeratzen da. Eskutitz au eta beste batzuk, il baiño ordu batzuk lenago idatzi ebazan: 1937'ko bagillaren 25'ean.

Eta gero diño: Lauaxeta 1937 'ko bagillaren 25'ean goizeko 5 1/2'etan su-iskillotu eben. Idazki jatorrai egin jakezan aldakien aldakiak dira oneik.

2.7.— B.B.B.'eko LENDAKARI JAUNARI (2)

Aldakien barruan bigarren eskutitza zuzentzen dautso gure Esteban Urkiaga'k B.B.B.'ko Lendakari jaunari eta lenengoan egiten dauan antzera, ordu gitxi geratzen jakozala bizi izateko gogoratu ondoren, barriro zin egiten dautso esanekotasuna eta Euzkadi'gan dauan fedea aldarrikatzen dau.

Bildurrik ez izateko aolkatuz ebanjelioak diñoana be barriro gogoratzen dautso: Ez bildurrik izan gorputza ilten dauanari, gogoa kentzen dauanari baiño.

Barriro eskatzen dau Euskalerra sinisteduna izan daitela, ebanjelio-bidetik jokatuz eta barriro agertzen dau here zorientasuna Jesus'engan eta Euzkadi'gan sinisten dauala ilten dalako.

Erriak daroazan nekeak daroazalako sari aundia izango dauala gogoratzen dau eta emakumeak eta abertzaleak agurtzen dauz.

Lenengo eskutitzean eta emen agertzen diran gaiak eta esaldiak antz-antzekoak edo bardiñak dira. Ez ete da on eskuz idatzi ebanaren utsa?

3.— AZKEN-NAIA

Lauaxeta'ren azken-naia, naikoa agiri luzea da, orre-gaitik esaldi laburretan agertuko dot eta gero zerbait argitu.

- Irutasun Santuaren izenean asi eta Kristo'ren irabaziai dei egiñez, bere gogoa Aitaren eskuetan izten dau.

- Gorputza lurrari damotso eta berbizkundearen itxaropena agertzen dau.

- Ez da lotsatzen Kristo 'gan sinistez eta Kristo be ez dala beragaz lotsatuko uste dau.

- Azken egunak garratzak izan dira, baiña pekatu ugarrien parkamenerako eskintzen dauz.

- Andra Maria'ren argia eskatzen dau Kristo ikusteko. Agurtza errezatzeak gogoko bakea dakartso.

- Eleizearen seme esanekoa dala eta bere irakatsiak sinistu eta aginduak beteten dauzala diño. Eta arrotasunik aundiena here besoetan iltea dala.

- Satanaz eta pekatu-bide guztiak ukatzen dauzala diño, guztiak erioz -bide diralako.

- Damutasunaz here bizitzako obena guztiak autortzen dauz, obetzeko eta obena-neke beteteko asmoz.

- Il-aurrean parkamena eskatzen dautse aingeru jagoleari, Esteban deunari eta Pedro ta Paulo apostoluari, bear dan besteko oneraspena izan ez dautselako.

- Aberkide guztientzat Jaunaren argia eskatzen dau eta erriak ezin gaizkatu leitekezala ebanjelio -bidetik izan ezik, diño.

- Aherioai parkatzen dautse eta eurentzat epai bigunagoa nai dau eurak beragaz izan dabena baiño. Bere aolkua guztiak alkar maitatzeko eta guda ankerra amaitzekoa da.

- Euskal -abertzale lez ilten dala eta zori txarreko erri au biotz guztiagaz maite dauzala diño. Jaungoikoak nai izan dagiala erri onek berak here bizitzan ikusi ez dauana ikustea.

- Adiskideai otoitz bat eskatzen dautse eta gaizpiderik emon ba'dautse parkamena eskatu. "Bizitzan maite izan zaituet, baiña geiago maitatuko zaituet zerutik.

- An itxaroten zaituet, diño, goibeltasunik ez dagon lekuan.

- "Nire liburuetan ezer ba' lego, diño, obenerako bide danik, jakin egizue ez-jakintasunez egin dodala eta ez dodala onartzen.

- Nire azkena ur dago eta egia diñotzuet: Sinistu egizue Kristo, itxaron egizue dana Kristogandik, maitatu egizue Kristo.

- Euskalduna (lenago Euzkadi egoala idatzita dirudi) nire aragiaren aragi eta nire odolaren odol, Euzkadi k betirako izan bear dau, gu beretzat eta Aberria Jaungoikoarentzat. Jarraitu Maisuari.

- Errukitu beite Jaungoikoa pekatari onegaz eta onartu begi beronen oparia. Jesus len orain eta beti, beragan eta berak bir-erosiak gara.

- Aintza Irutasun Guztiz Santuari eta Maria eskar guztien bitartekoari.

Urkiaga ta Basaras'tar Esteban 'ek Gazteiz' ko espetxean su-izkillutu eben gabeen.

Kristo, erruki zakidaz.

ZER DERITXAZUE

Azken-nai au astiro ta sarritan irakurri ondoren, eritxi batzuk agertu nai neukez.

Errez sinisten dot bere-berea dala.

Abertzaletasuna eta arlo onetan agertzen dauzan eritxiak oso-osoan izenpetuko neukez.

Fede-arloan, sakontasun aundia agertzen da. Parkamena ainbestetan eskatzean here sasoiko jokabide bat ikusten da. Bildurra agertzen da baiña bildurraren gainetik uste ona.

Gudea amaitzeko eta neba-arreba lez bizi izateko eskaria oargarria da. Zer esango ete leuke gaurko giroa ikusita. Gudea amaitu zan, baiña ez bakea eginda, aide batek nagusi urtenda baiño. Neba-arreben maitasuna ez zan iñondik agertu. Baiña orain ba-goaz burujabetza sendotzen eta aurrera egiteko bideak ikusten dira, baiña, zori txarrez, bide luzea dago egiteko. Zer esango ete leuke gaur?

Esteban "Gora Euzkadi" aldarrikatuz il zala uste dot. Erria maitatzea Jaungoikoak nai dauan gauzea da. Orainsu jakin dot Mungia'ko gazte bat, Paul'darren sailleko lekaidea, Teruel'en il ebela marxistak guda-aurrean, eta il orduan erderaz Gora Kristo Erregea eta Gora España aldarrin egin ebala. Eta au, antza dagoanez, santutzat artua izateko bidean dago. Noiz elduko ete da olako aukerea Euskalerriko ziñopa edo martirientzat? Iñoz bai?

Goratu daiguzan gure Erri zoritxarreko onetan izan diran gizon aundiak.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

OLAZAR

Egun eder bi atzo eta gaur,
Euskalerriko zelaian,
gizon on baten asmo bikaiñak
oroi zenduzan eskolan;
Lauaxetaren bizitz ederra
egiz, euskaldun izan zan,
ta oroz goitik, sinismenduna
Jaungoikoaren aurrean.

Gauz eder onek gogoratzeko,
gaurkoz, ar zendun bizia
Euskalerriko bizitza alde
talentu eta argia;
sasoi ederra eskertuteko
Jaungoikoaren grazia,
urteak urte luzetu bediz
zabalduteko egia.

PAULIN

EUSKERAZALEAK ALKARTEA (EKINTZAK: 1995)

Gabon Jaun-andreok:
Urtero egiten dogun lez, Batzar Nagusi onetan, igazko ekintzak azalduko doguz.

EUSKAL IKASTAROA

Lengo Urrilla'n asitako gure euskera-ikastaroan, oi baiño izen-emote geiago artu dogu. Benetan pozgarria da guretzat, ainbeste urte irakaskintza orretara emon ondoren, ikasleen adorea ostentzen ez dala ikustean, eta onek aurrera joateko gure poztasuna piztuten dausku.

EUSKAL ASTEA

Azken urteko oitureari jarraituz, 1995 Azilla-ren 13'tik 17' rarte, Eskolapiotarren ikastetxean ospatu dogu Euskal Astea. Ona emen izlarien izenak, eta emondako gaiak:

13'an Legarreta'tar Asier,

Abereen mundua.

14'an Zeberio'tar Mikel -Iturieta'tar J. Luis,

Euzkadi'ko gaztaiak.

15'an Zubiri'tar Iñaki,

Euskal esku-langintza batzuk

16'an Olazar'tar Martin,

Lauaxeta'ren Azken naia ta idazkiak

17'an Zubikarai'tar Augustin

Ondarru euskalduna

Gai jakingarri oneitara entzule-kopuru polita etorri zan.

Emondako gaiok gure aldizkari "ZER" en agertuko dira. Ereti au ustiatuz bioakie eskolapiotarra gure eskerrik beroena, gure aukeran ipiñi dabelako, beste urteetan lez, euren ikastetxeko areto egoki ta txukuna.

IPUIN SARIKETA

Beti lez dei egin dogu gure oiko Ipuin Sariketea. Ipuin ontasuna ona izan dala esan bear dogu, eta aal dogun artean, dei on egiten jarraituko dogu, onuragarria dalakoan idazle barriak sortzeko. Ona emen irabazleak:

1'goa Goikoetxea'tar Iñaki

2'gna Arrinda'tar Arles

3'gna Zubikarai'tar Augustin

4'gna Legarreta'tar Asier

EGUTEGIA

Aurtengo egutegia be atondu eban gure talde saiatuak.

Argitarapena BBK Kutxak bere pentzuan egin dau. Aleak eskatu daitezke BBK'ren edozein etxe baten.

"ZER" ALDIZKARIA

Argitaratzen jarraitu dogu, Olazar'tar Martin'en zuzendaritzapean agertzen dan aldizkari kutun au. Onen ontasunari buruz zuek izango zarie epailleak, illero-illero artzen dozue. Aurrera jarraitzeko, eta Batzorde au adoretzeko, idazlanak bialdu dagiskuzuezala biderik onena da, baila orain erriko erakundeek ain txarto erabillitako bizkaiera iraunerazoteko be. Zoritxarrez, gure aldizkari au, bizkaieraz argitaratzen dan bakarra da.

Esan bearrik ez dogu, "EUSKARAZALEAK" bizirik jarraitu dagian arte, gure aldizkaria au bazkideen eskuetara elduko dala. Egia da gaurregun bizkaiera estu ta larri aurkitzen dala izkuntza-politika zoro ta zentzunbakoagaitik, baiña zelan edo alan gure euskereari eutsiko dautsagu, gure betekizuna data, ainbeste ergelgelkeriaren aurrean.

LIBURU AZOKA

Aurten be tartekoak izan gara urteoro ospatzen dan Durango'ko azokan. Esan bearrean gara, salketak oikoak izan dirala, eta ale batzuk uste baiño obeto saldu dira.

Eta beti lez, esan bear dogu, ainbeste idazlan eta ikerleentzat oraingo lekua ez dala egokia. Oraingo oztopoak uxatzeko, beste andiago bat aurkitu bear izango leukie azoka onen eratzailleek.

LAGUNTZAK

Barriro be gomutarazoten dautsegu bazkideai, euren arteko diru-laguntza bearrekoa yakula gure betiko ekintzak burutzeko.

Guretzako, laguntzarik ederretsiena, zuek bazkideok, emon daukuzuena da, eta geien adoretzen gaituana baita be.

Eta zuen laguntza on ainbat bearrekoagoa da, Bizkai'ko Foru Aldundiaren laguntza gero ta urriagoa danean. Igazko Aldundiaren diru-laguntza, aurreko urtearen erdia izan da, eta orain urte batzuen laurena. Negargarria da autorpen au egin bear izatea, baiña uste dogu gauzak diran lez azaldu bear doguzala, guztien jakingarri.

Aurten be eskertu bear dautsagu Bilbao'ko Udalari, emon dauskuen laguntzagaitik, baita BBK Kutxari be.

Besterik ez, Jaun-andreok.

ZUBIRI'TAR IÑAKI'K

EUSKAL AZTARNAK (III)



ILDAKOAK

—Eta, ildakoak zer?

—Paleolitikotik asita, ildakoen gorputzak koba-zuloe-tan eortziak izan dira. Aurrerago ere bai. Leizeak dau-den bezela erabiltzen diran lan orretarako, dauden bezela-xe eta ezeren ikuturik egin gabe. Antxiña-antxiñako oitura izan arren, Neolitikoa Aroa asi ondoren, batez, ere Eneoli-tikoan (Tupiki edo Urraida garaian) ugaritu ziran, trikuarriekin norgeiako baten antzera... 1982'an egindako bilke-ta batetik au da ateratzen deguna: Gipuzkoa'n 57 koba zeuden gorpuak eortzeko erabiliak, Bizkaia'n 51 eta Ara-ba'n 56... Arrezkero arkitu diranak zenbatu gabe, 163 koba-zulo... Euskalerrri osoan, beste pillo eder bat.

Zelan eortzen zituzten ildakoak?

—Batzuetan eortzen zituzten koba baster batean, orma-ren babesean lagata, auts apur bat gañean eta besterik gabe. Beste era batera auxe izaten zan: aurretik gorputzki biguñak erre eta ondoren ezurrak eortzi. Irugarren era, Europa'ko Ipar-aldetik etorria, gorputza zearo erretzea zan, auts biurtu arte eta errautsak eortzi 'tumulo' edo cromlech baten erdian. Goi-aldeko Euskalerritik etorri zan oitura au; baña, ez zan sartu ez Bizkaia, ez Araba'ra. Gipuzkoa eta Naparroko ertz batean bakarrik aurkitzen dira cromlech'ak.



KONDAIRA

—Baña, koba-zuloetan, nun?

—Atariko argia eltzen dan lekuan; sekulan ez argigabe-ko txoko illunetan. Al ba'zan, Ekira begira; eguzkiaren sorrerari hegira: Eki-aldera oiñak eta Sartaldera burua; orrela Eguzkia sortzen dan unean, begietan emango dio ildakoari... Eguzkia izan aientzako jainko nagusia. Gorpua-
ren ondoan, ezkeintzak: lanabesak, aragia, argia, edergai-
lluak, aizkora txikiak... Beste mundurako bear zituzten
gauzak. Gorpuk.



—Eta, aizkora txikiak, zertarako?

—Tximistan kontrakoa izan da beti aizkora. Aizkorak
gordetzen zuen gizakia tximistaren eraso -alditik, txikia izan
aren eta ez dira koba-zuloetan faltatzen ildakoen babesera-
ko... Leize onek kostatik daude geienak, goiko mendietan
trikuarriak dauden bezela. Aberatsak (abere dunak) goietan
bizi ziran, artaldeak beuren jana zuten lekuetan eta artzaiek
antxen eortzen zituzten, ilda gero, euron gorpuk... Abera-
tsak ez ziranak edo, itxaso ertzak eskeintzen zien karaiz-
zuloetan... Aberatsak ez izan arren, ez zitzairen beste mun-
durako laguntzarik faltako; baña, gauzarik politena, Urnie-
ta'ko Mari -zulo leizean gertatu zan: Artzaia eortzi zuten
txakur zaarra eta iru illebeteko arkumatxos aldamenetan
zuela. Osorik, biak; eta bera, buru aldean, iru arri landuz
inguratuta, oiñak eta aurpegia eguzkiare sorrerari hegira.

TRIKUARRIAK

— Eta zer dira trikuarriak?

—Trikuarri edo Tregoarri, esan degunez, artzaiek ilda-
koak eortzeko zuten era berezia bat da. Erderaz, dolmen;
portugaleraz, anta; galegeraz, mamoa... Bost arri aundi era-
biltzen zituzten txikuarria egiteko: lau zutik, lau aldamenak
beteaz, eta bosgarrena, txapel bezela; gero, on Jana, lurrez
eta arriz ezta... Zabalduena eta xinpleena, orixe da; baña,
ez da era bakarra; badira aundiagoak, arri geiagoz egiñak,
sarrera dunak...



— Nolan sartzen zituzten gorpuk?

—Zeuden bezela eta gorpuzki bigunak aurretik erreta ere
bai; beste mundurako bear zituzten laguntzekin: lanabesak,
aragia, edergaillu, txintxilikario, argia, aizkora txiki eta
abar. Lan onek eginda gero, trikuarria, here osotasunean,
arriz eta lurrez ezta eta gorde.

—Nundik nora zabaltzen dira trikuarri onek?

—Europa'ren sartaldeko ertz guztian: Andaluzia'tik asi,
Portugal'etik gora, Galizia'ra, andik onuntz Euskalerrria,
Pirene-mendian aurrera, emen gorako bidea artu Frantzia'n
zear Irlanda eta Ingalterra'ra bidean... Franko-kantauri Kul-
tura aztertzean esaten genduen gertatzen da eme ere: ale-
gia, Euskalerrria, erdiko ardatzean dagoela... Andaluzia'tik
Ingalterra edo Eskozia'ko muturrera, bide-erdia guregan
dago.

Euskalerrira nundik etorri ziran trikuarriak?


—Batzuek esaten dute beetik etorri zirala; beste batzuek,
goitik edo aldamenetik. Aldamena, Pirene-mendia da eta
aldamen on geure historiararte, euskalduna izan da beti;
beraz, aldamenetik erantzutea, ez da benetako erantzuna.
Ori, Euskalerritik Euskalerrira erantzutea da. Goitik edo
beetik. Trikuarrien Europa'ko mapari begiratu ezkerro, auxe
ikusten det: Goiko muturrean (Ingalterra) eta beekoan
(Malaga), an daudela trikuarriak aundienak, beteenak eta
osatuenak; Txikienak eta xinpleenak, gure artean...

—Eta, trikuarriak nun egoten dira?

—Bost milla urte baño zaarrago izanda be, trikuarri onek
gaur egun artzaiek artzantzan dirauten duten tokietan ber-
beretan, antxen daude; mendi aietan billatu izan dituzte. la
geientxonak Barandiaran'go Joxe Miel'ek aurkitu zitun.
Bere aurretik eta bere ondoren topa dituzte bakan batzuek;
baña, benetako pillo galanta berak aurkitu zitun. An zeuden
lurpean eta iñorko ikusi ez.

—Eta, orrek zer esan nai du?

—Eboluzioa artzen ba'degu eredutzat, txiki eta xinplee-
natik asi bearko genduke; ez iñola ere, aundinetatik, osa-
tuenetatik... Ez beetik, ez goigoitik: ez Malaga'tik, ez



Inglaterra'tik... Orrelako trikuarrietara eltzeko eboluzioak denborak bear du... Eboluzioa izan ba'da, eta izandanaren itxura badu, gure erritik asi bearko genduke eta emendik aldendu ala, orduan joango lirazke aunditzen, edertzen, osotzen... Korapilloa or dago oraindik askatzeke.

– Trikuarri onek nun agertzen dira?


– Orain 5.000 baño zaaragoak izanda ere, artzaiak artzantzar segitzen duten mendietan, an arkitu izan dituzte. Ia geienak, danak ez ba'dira be, Barandiaran'go Joxe Miel'ek billatu zitun. An zeuden lurpean; iñork ikusten ez. Zergaitik ez zituzten ikusten? Arri txikiz eta lurrez estalita zeudelako ingumari guztian. Don Joxe Miel'ek agintzen zien bere baserritar lagunei nun atxurra sartu eta an agertzen zan trikuarri berri bat... Ar daude gaur eguneko sarobeak eta aien gañean jaten zuten belarra gaur eguneko ardiek... Aurrekoak ere, millaka urtez.


– Eta, iñork ez zekien trikuarri oien berri?

– Bai, zer-edo-zer bazekiten, ipuiak daudelako trikuarri batzuei buruz: idilarruak zeudela urrez beteak zeudela toki berezi batzuetan... Bai ondo atxurtu ere zenbait tokietan trikuarriak ondatuz... Juan Mari Apellaniz'ek dionez trikuarriak egoten dira pasa-lekuko muñoetan: ballera batetik bestera, larre batzuetatik bestera, txabol-sail batetik besterako bide ziuurretan... Artzaiak dabiltzan tokietan. Geienak 800 metrotik gora eta 1.000 bitarte orretan. Gutxi millatik gora edo zortzireun metrotik beera. Paraje aietan egin zituzten euren illobiak orain 5.000 urteko artzaiak: Aralar, Aizgorri-Urbia, Ataun-Burunda, Andia-Urba, Enzia eta abarretan... Gaztai onenak egiten diran goi-goiko belardietan...

– Sepultura be deitzen diete trikuarriai.

– Geien erabiltzen dan izena trikuarri edo tregoarri da; baña, badira onelako beste izenak ere: Sorgin-etxe, Jentil-etxe, Tartalo-etxe, Jentil-arri... Erderazko auk Araba'n: almora eta marcuero; itz onetik datoztela dirudi, euskerazko Murkoa eta Armorkora... Izen oiek ordea, trikuarriari buruzko ipuiñetatik sortu dira geienak. Araba'ko Errioxa





aldean trikuarri asko daude, an ere artzaiak ziran eta badira oraindio, naiz-eta nekazaritzak lur onenak artu, badituzte erriko mendiak eta ara bialtzen dituzte bai auntz eta bai bei... Garai batean, areago.

—Ipuietatik sortu direla izenak esan didazu.

—Bai batzuek. Ipuia asko dago Jentillei buruzkoak trikuarrien inguruan. Jentil-arri esaten diote trikuarri bateri berari buruz ipuia au zegoelako: Kristautasuna sartu zanean jentil guztiak arri aren azpian sartu ziran... Tartalo-etxeta Zegama'n dago eta ipuiak dio an bizi izan zala Tartalo giza-ki-jale begibakarra... Jentillei buruzko ipuia asko dago Euskalerrian Ataun'go Jentil-baratzatik asita. Orain 60 urte bazan Jentil'eneko etxea ere eta bertakoa zan ainbeste urteen buruan Errenderi'ko Parroko izandako Roberto Agirre jauna; eta jentillek deitzen diete Aia auzokoei... Jentillek eta trikuarriak alkarrekin lotuta ibilli dira...

—Eta, trikuarriak berez estalita egoten al dira beti?

—Berez estalita egoten dira trikuarrien host arlosak; arri xeez eta lurrez tortotxo bat osatzen dute here inguru osoan, borobilla eta metro batzuek zabal. Inguru guztiak Tumulus esan oi zaio. Tumulus autean ez da beti trikuarri bat egoten; batzuetan lau arrizko kaja bat (Cista) estalirik gabe eta bere barruan lurrezko ontzi bat errautsekin, edo errautsak bakarrik. Batzuetan tortotxo (Tumulus) orrek arriak ditu zutik bere inguru guztian koroï baten antzera (Cromlech). Bi

koroidunak be badira. Tarteka, arri auen artean, beste aundiago bat tente (Menhir)...

—Eta, eortzeko aizkeneko era berri auek, euskaldunak al dira?

—Oiek Europa'ko Ifar-aldeetik etorri ziran Lapurdi, Benabarre eta Zuberoan sartutik: tontortxoak (Tumulus) 176; tontortxo eta arri-koroïak batera, 61; koroïak (cromlech) 170. Auek ez ziran egoaldera sartu Gipuzkoa eta Naparroa'ko ipar-aldeko ertzetxo batean ezik. Lizaran'go hallaran gelditu eta kosta-aldeetik Donostia'ko Igeldo auzoraiño sartu ziran. Biazkai eta Araban ez ziran batere sartu. Zergaitik sartzen zituzten arri-koroï oiek tente? Ildakoen babeserako ala bizienera? Auskalo.

—Norek ekarri zuten Euskalerrira eortzeko era berriak?

—Baziran Europa erdian eta goi-aldean, indoeuropeoen tarteko erri batzuek, brontzea menperatzen ikasitakoak (orrek indarra ematen) eta Eki-alderuntz irten zuten eguzkiaren billa, Europa guztian zear. Guregana ere eldu ziran Pirene mendiko sortaldetik, Orreaga (Roncesvalles) zulotik aurrera Iruna'raino. Andik bi egoetatik abiatu ziran: Ebro ballarara batzuek eta Sakana'tik aurrera besteak Araba'ra... Baña on dan on beste arazo bat da urrengo atzalbururako.

ARRINDA'TAR ANES

ITXORKUNAK DIREALA-TA

Aldizkari onen Urtarril'eko zenbakian Agirregabiria'k izenpetutako idazlanaren "Obetu daigun gure euskera" izenpurua irakurri nebanean, geure izkuntzeari buruz ez dakidan zeozertxu aurkituko nebalakoan, gogoz asi izan nintzan irakurten.

"Euskera erkiña, gatz gitxikoa, arlotte xamarrira" irakurten dauala aldizkarietan, diño. Ez dago oker: Taiuz idatzitako lan askorik ez da aurkitu be egiten, ba, aldi onetan.

Zuzen idazteko, euskeraz ondo jakin eta, ganera, euskal-sena bear da eta auxe dago urri egungo idazle edo idazletzakoen artean.

Izkuntzeari buruz zeozer idazten dogunean, zain ibilli bear da, okerren bat zuzentzekotan, akats aundiagoen baten jausi ez gaitez.

Itxorkunak aztertzen ibilli izan direanak, kirtenkeri asko esan eta idatzi izan dabez, euren irudimen lorriñari askatasun osoa emonez. Itxorkunlari ontzat dagozanak idatzi dabezanak be ez dira guztiak siñisgarriak: Ez-ta urrik be!

Autuan darabildan idazlantxu onek be badakar olako itxorkun barragarri bat, "pekorotza" dala-ta. Itz orren jatorria jakin ebanean lotsatu be egin izan ei-zan eta bere buruaz aserretu here bai. Berba orren esangureaz konturatu ez izateaz bai lotsatu bear eukean, eta ez euskeraz ez dakian arrotzen batek esandako kirtenkeria siñistuz.

Pekorotzaren esan-gurea argi dago; ez daukagu, ba, buru-austen ibilli bearrik, arean be. Euskeraz tautik ez dakian erdaldunari etxaramon egin eta Azkue'ren iztegiari begiradatu bat egin izan ba'leutso, antxe irakurri egikean pekorotzaren esan-gurea.

Pekorotz, bei-korotz dogu, ba, eta ez beste ezer. Ala, korotza zer dan ez daki, orri buruz idatzi izan dauanak?

Asta-korotz, txakur-korotz, kata-korotz eta abar ez doguz esaten ba? Bai-ta giza-korotz be, orain beste ume-berba zikin on darabilgunarren. Ume-itza da txixa be. Lenakokoak garnua esaten eben.

Abizenez Angulo zan batek, An-guk-lo esan gura ebala here deitureak esan eban. Benetan itzulpen polita, txakur-amesa ez ba'litz. Onen antzeko txoriburukeri asko idatzi eta esan izan dira itzen jatorria aztertu-guraz.

Irakurri dot idazle onek "izan" eta "egon"-i buruz bigarren lanean idatzi dauana be. Orretan zuzen dago:



aldi onetan txarto darabillez ba, erabili be, aditz oneik, geienak. Baiña, azkenean dakarren zuzentetan, oker dakar esataldi bat: Euskaldun jatorrok iñoz bere ez genduke esango, nun da zure aita, nun da zuen aita, baiño. Benetako euskaldunok beti esan izan doguz geure aita, geure anaiea, geure ama eta abar eta iñoz here ez, gero, neure aita, neure anaiea, neure ama eta abar.

Zareana zareala, Agirregabiria, nik esanok ez artu iraingarritzat, okerrak zuzentzearen baiño ez dira izan-eta.

Zain eta zuzen ibilli bearra dogu, ba, euskerearen zidorretaz, usterik gitxien dogun lekuan ostopo-egin eta ez-jakintasun lotsagarrian jausi ez gaitez.

AURRE-APRAIZ'TAR BALENDIN

SENDIA

Lurrean sorturiko lenengo gizarte ingurua sendia da. Berezko izatearen deiak ta laguntasun bear izanak, alkartu zituan senar-emazteak lurrean bizitza on bateri erantzuna emoteko ustez. Alderdi bietatik ikusten eben bakardaderako jaiok ez zirela ta bien artean alkartasun bat sortuaz, bizitzari erantzuna emoten eutsola alkar laguna zoriontsuagoa egiñaz ta munduari seme-alaben bidez lora barriak sortuaz.

Sendia, munduko lenen batzarra zan ezkerro, andre-gizon ta euren umeak izan ziran jakiturizko gizakien bidez lenengo gizartea sortu ebenak nai ebana. Ori dala-ta, sendi-batzarra gizartearen buru ta oiñarri da ta bere eskubide ta eginbear agurgarriak Laterriak baiño lenagokoak dira.

Ezkontza-asmoa berezko legetik datorren elkarte eskubidea da. Lenengo sendi batzar onek bere ardura, garrantzi ta ondore zuzenagaz munduari argitasun asko emon bear dautso ta gizartearen biziari abe sendoak jarri, bizia zuzentasunez ta maitasun garrez sendotzen joan dedin erri, Laterri ta munduaren onean. Egiz, gizadiak merezi dau oiñarri on baten gaiñean aurrerapen aundiz bizia egitea geroak esan ez dagian: Gizonak utsa emon dau munduan.

Izan bere, eguzkia bere dirdiraz beti, izadia argitzen dagon legez, sendiaren biziak be giza laiñoak urratu ta argia zabaldu bear dautso lur guztiari = zuzentasunaren argia, maitasunaren argia; geroago ta gizarte jakintsu ta bizigarriagoa izan dedin munduko Laterri guztietan.

Ezkontza egiuncaren izaera berezkoa da ta danez goitik dagon ezkerro, aldatu eziña da ta Laterriak be aldakuntzarik ezin jarri leikio biziaren Egillea dalako egiune orren Jaun ta Jabea.

Sendiaren ardurea gurasoengan dago, baiña ezkontzalkartearen izaera ta laguntza ain zer goragarria diran ezkerroz, bidezkoetan euren esana betetu ondoren, seme-alabak euren eskubide ta eginbearrak daukez. Egokia ta zuzena da buru eta biotzdun izaki guztiak sendiaren bizia euren argiz, kemenez ta borondatez aurreratu ta sendotzea, geroago ta bizi obe ta indartsuagoa emonaz.

Seme-alabak azi ta ezi egitea gurasoen eskubidea da. Eurak dira izaki barri on sortu dabenak, eurak dira beraz, aren biziaren erantzupendun, naustu ta argitu egiten diran bitartean. Gero, ondoren aita, ama ta seme-alabak indartuko dabe lurrean, berez ta aurrenengo sortu zan alkarte zoragarria.

Umekia amaren sabeleko sortzetik asita, zer guztien esku-bidedun ta eginbeardun da. Biziaren eta janariaren eskubidea dauka ta bere aurka jokatzeta, izaeraren aurka jokatzeta da. Umeak beste gauz eder bat dauka ikusten ez dana ta gorputz aragiz goitik dagoana... arimea. Onen almenak dira gogorarena, adimena ta naimena. Aragiak ez ditu egiten pilosopi edo jakintzaren ikaste zoragarriak ta jakituriak sortzen dituan illargira ostera, itxasoetako ibillaldiak, gorputzaren aldeko osasun aurrerapideak. Egite guztiok dira arimaren almenen bidez gizonak sortzen dituan aurrerapide ongarririk.

Gorputza eder dalarik, amai bako jakituriz egiña, gogo aldetik giza-semea jakituriz beterik dago, gizadiaren aide egizkizun arrigarriak sortzeko.

Semea gurasoen oiñordeko da ta iturri ortatik bizia artu eban ezkerro, guraso ondasunen jaubegi da biziak berak eskatzen dauan eran. Sortzaillea ta sortua bizitza kateiaren bidez, ondo, lotuta dagoz eginbearretan ta on etorrietan.

Laterri-gizarte barruan edozein gizonak sortu leikez, guztien onerako diran gizarte batzar laguntzaille menpekoak. Musika alkarteak naiz ikasteko alkarteak sortzea gauza egokia da gizartearen bizia edertuz, aurrera, joan dedin. Ta orren aurka iñork ez dauka zeregiñik.

Erri agintaritzaren aldrako buruzagi aurrena gizona da. Gizona, izadian sorturiko izaki bikaiñena, gauza guztien buru da lurrean bere argitasunez, borondatez ta askatasun-jabetasunez. Iñor ez dago beren goitik lurreko izakien artean. Gizonarentzat sortuak dira gauza guztiak ta bera da zer guztien zuzendaria zentzuzkolegeen barrutian.

Berezko legearen eskubide aldaezina da agintaritzaren bear-izana. Giza izateak beregan dituan eskubide, eginbear ta arazoak zuzendaria bear dabe gizarte batzarra, zuzentasunez ta bakez, biziak, aurrera, egin al izan dagian gizartian.

Enderriaren biziari eutsi-erazotea erritarren zeregiña da, norbere etxe nagusia galzorian aurkitu ta laguntza eskatukerant. Lege zuzenak erantzupenpean agintzen dabe. Erritarrari laguntzea enderriaren zeregiña da ta berezko eskubidea. Era onetan egon bear dabe artu-emonetan erritarra ta enderria bakoitzaren ta erriaren bizia zainduz auzo-auzoetan. Iñor ez da iñor baiño gitxiago eta ez eta geiago, mundura eskubide bardiñekin eltzen dira-ta giza-semeak norbere lurraldean ta iñork ez dauka besteak zapaltzeko eskubiderik.

Zuzentasunaren aldeko garaitzaren eskubidea berezkoa da ta oiñarri sendoz indartua. Zuzenbagekeriak ez dauka, iñun, eskubiderik, naita zoritxarrez, mundu onetan, sarririk, gaiztakeria nagusi ibili lagunak, sendiak ta aberriak zapaldu ta ta minberatuta. Askotan ibili oi da guzurra norberekeriaren maltzurkeriz, bereak ez direnak zurikatu ta bereganatzen.

GIZARTERAKO

Gizarterako sortu zan
giz-irudi aundia
Egille-eskuetan;
Jaubearen antzera
argiz ta maitasunez
izar iruditan.

Argiak, berez, dakar
loramendi gaiñean
bitxi dotorea;
giza-semea jatorrak
zuzentasuna dakar
maitasun artera.

PAULIN

GERRA ZITALA (1.º SARIA)

Ernio mendiko magalean, Eizmendi baserrian,
Inazio ogeita bat urteko mutil sendo jatorra bizi zan,
bere anai txikiago Manu, eta ama alargunarekin...

Ogeita bat urte, soldadutzara joan bearreko adin
gaiztoa.

Inazioren auzoko lagun Arreta'ko Martzial, solda-
dutzarik ez egiteko Ameriketara joan zan ango osaba
Joan Jose'k deituta... Baina Inaziok ama alargun
eukan, eta zelan itxiko eban bere ama etxean Manu
anai txikiarekin bakarrik?...

Eldu zan "sorteo" eguna, eta Eizmendi'ko semeari
Melilla'ra tokatu jakon. Afrika'ra! Lekutara!

Baina agintzen dauanak agintzen dau, eta an doa
trenez gure mutil jatorra "kakiz" jantzita, Kastilla'ko
lurralde zabalak zearkatuz, ilun eta triste, beste solda-
du erdaldun pilo batekin erbestera bidean.

Treko leiotik begiratuta Kastilla'ko lur legorrak,
agorak, auts kolorekoak, ez ziran ez Eizmendi'ko
landa orlegien antzekoak... Lurralde il arek basamor-
tu zala emoten eban...

Iru eguneko bide luzeaz aspertuta, nekatuta, azke-
nean trenetik jatsi, eta Kadiz'ko itsasoarekin aurrez
aurre aurkitu zan... Itsasontzian beste aldera igaro,
eta... Ara, Melilla!, Afrika'ko uri zimela!!!

Kuartelean Inazio'k "un-do" "un-do" pausoa
neurtzen beste lagunekin batera ikasi eban, baita fusi-
la lepoan "goardia" egiten ere...

Inazio, baserriar filosofo sakona zanez, gauez
nekatutik katre gainean etzuten zanean, pentsatzen
jarte zan: Soldadutza au baino gauza alperragorik!

Baserriko lanak an itxi, eta urte bi emen ezer egin
barik emon bear!!!

Eta gainera, soldadutzan zer ikasten da?

Gizonak alkar ilten!

Deabruaren asmakizuna!

Eta... etorri bear ez zana etorri zan...

España'n españolak alkarren artean ezin konpon-
duz, anaien arteko gerra zikina biztu eban.

Gerra amurratua, odoltsua, okerrik okerrena...

Alde batekoak: Viva España!!!

Eta besteakoak: Viva Rusia!!!

Eta alkar ilten.

Txakur amurratuak baino ankerrago.

Deabruak baino gaiztoago.

Au "gorria" da, eta lurpera!

Ori "fatxa" da, eta kanposantura!

Odolaz mozkortuta, gorrotoaz itsututa, milaka eta
milaka ilak kaleetan, mendietan, bide bazter eta
espetsuetan.

Itsaso bete odol! Milio bat ildako.

Inazio beste soldadu lagunekin Melilla'tik Madril
ondoko Guadarrama'ra eta gero emendik "norteko"
frentera ekarri eban, Araba'ko Legutiano guda-oine-
ra, ain zuzen...

Inazio'ri Euskalerriko lurraldeak berrero ikustean
biotza nasaitu jakon, eta arnasa ere obeto artzen
eban...

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

IPUIN-SARIKETA

Baina orain here begien aurrean zituan landa orlegi eta baserri zuriak, leengoak baziran ere, ez ziran leengoan antzekoak.

Euskalerrri osoa, ames gaiztoetan lez, gorritz margotuta ikusten eban. Eleizako torreetan i1 kanpaiak entzuten ebazan.

* * *

Eta zoritxarreko egun baltz on etorri zan.

Inazio'rentzat egunik baltzena:

1936. urteko San Andres eguna...

Bizkai'tik eusko gudariak Barazar aldapa gora kementsu doaz Araba'ko lurraldera, Legutiano irabaztera.

Biotzak aberri maitasunez garretan kantari doaz:

Eusko gudariak gara

Euskadi askatzeko.

Gerturik daukagu odola

ber^s aide emoteko.

* * *

Legutiano'ko zelaietan soldaduak aide batetik, eta gudariak bestetik aurrez aurre aurkitzen dira.

Burruka asi da.

Kanoien orroak, ametralladoreen taka-takak, fusilen tiro otsak belarriak gortu egiten dabez, eta biotzak dardaraz jarten.

Emen zaurituta gudari bat lurrera jausi da.

An kanoi obus batek iru soldadu txikitu ditu.

Bestean guda-tanke batek su artu eta barrukoakkiskaldu dira.

A sarraskia! Alde guztietan odola, triskantzak, eta il aginekoen azken aienak...

Otsoak ez ei dau otsorik jaten, baina gizonak bai, basoko piztiak baino ankerrago alkar zauritu, txikitu, eta erruki barik irunsi egiten dabe...

Legutiano'ko zelaia, ainbeste gudari gazteen iletoria!

Euskal etxeetan zenbat gudariren amak euren seme galduagaitik negar egingo dabe!

Espainolen euren arteko gorrotoak, guk euskaldunok geure seme onenen odolaz ordaindu bear!...

San Andres eguna, urte guztiko egunik tristeena, baltzena, luzeena!

Noiz triskantza amaituko?

Noiz kanoiak ixilduko?

* * *

Eguzkia gizonen arteko alkar ilteak ikusita, lotsatuta, mendi ostean eskutatu da. Gaua eldu da...

Legutiano'ko zelaira ilerriko bakea zabaldu da. Tllargi beteak ildakoei argi egiteko ber^s izpi tristeak zeru oskarbitik lurrera bialtzen ditu...

Alde bietako burrukalariak egun argiko asarreak aaztuta, goibel eta ixil, ildakoei lur emoten asi dira.

Egunez arerio, gauez lagun. Eriotzaren aurrean ez da etsairik. Alde bateko eta besteko ilak Goiko Jaunak bere altzo samurrean artu daizala...

An bide bazterrean gudari gaztetxo bat lurrean zaurituta azken arnasetan dago. Beso bat az bere bularraren kontra ikurrin bat estututen dau. Beste besoa leergailu batek susterretik atera deutso. Odol ustuta, gaitxoak, ura!, ura! eskatzen dau abots makalaz.

Badoakio Inazio bere urontzitik edaria eskeintzera, eta ura emoteko makurtu zanean, ene Jaungoikoa! Zer da au? Eizmendiko semea arrizkoa balitz lez gogortuta gelditu zan...

Lurrean etzunda il aginean egoana Manu bere anai txikia zan. Amasei urte bakarrik euki arren, gudari Euskadi'ren aide joana.

"Zer dozu Manu neure anai maitea?", itandu eutsan negarrez Inazio'k.


"Ez nigaitik negarrik egin", erantzun eutsan Manu gudari kementsuak. "Ni Jaungoikoarengana noa. Baina esan gure amari nire azken gorantzia beretzat izan dala".

Gerra zitala!!


IÑAKI GOIKOETXEA

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Zein bidetatik joango da emakumea, bere aizegailua artuteko?



Badakizu nungo dan "Koala"?
Persia, China, Holanda, Australia ala
Alicante'koa da?

Lotu zenbaki onek eta marrazkitxu hat lortuko da.



Betidanik.

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.
Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardiñak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta on
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Bahia leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geureaz onurak itzultzeko.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa
EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK